

Ondo josi gabeko ohar batzuk

KORO NAVARRO

Orain pare bat hilabete-edo, EIZIEk eskatu zidan ea idatziko ote nuen zer-bait *Senezera*ko; eta, egun berean kasik, *Demagun ehun urte barru* proiektuaren harira antolatutako mahai-inguru batean parte hartzeko proposamena egin zidaten. Hala, ohar hauek idatzi nituen itzulpenaren inguruan, mahai-inguruan esateko, aukerarik izanez gero (gero, gauzak beste bide batzuetatik joan ziren, baina tira), eta EIZIEren eskaerari erantzuteko. Ohar solte samarrak dira, azken denborotan itzulpenaz esan direnak gogoan hartuta sortuak.

Demagun ehun urte barru Anjel Lertxundik gidaturiko proiektu bat da, Donostia 2016ren harira sortua: sei lagun —jatorri eta hizkuntza desberdineko idazle eta itzultzaileak: Javier Cercas, Karlos Cid, Marie Darrieussecq, Adan Kovacsics, Miguel Sáenz eta Raul Zelik— bildu zituen Lertxundik Donostian, hizkuntza ez-hegemonikoetako literaturaren gainean gogoeta egitera, globalizazioaren eraginpeko testuinguru kulturalan. Gogoeta haiek liburu batean azaldu dira duela gutxi.¹ Liburuaren aurkezpena

zela-eta, 2017ko maiatzaren 11n, mahai-inguru bat egin zen, Donostiako Tabakaleran, eta hantxe elkartu gintuzten Xabier Olarra, Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano eta ni, *Demagun...* liburua zela-eta.

Liburua osorik da interesgarria, eta interesgarriena, dudarik gabe, ugaritasuna da, jatorri eta hizkuntza desberdineko idazleen eta itzultzaileen iritziak alderatzea.

Puntu batzuk nabarmenduko ditut hemen, itzultzailearen ikuspegitik ene iritzian interesgarrienak izan litezkeenak. Esate ba-

1. Anjel Lertxundi (koor.); *Demagun ehun urte barru*, Donostia / San Sebastián 2016 Fundazioa eta EIZIE, 2017.

terako, zenbaiten iritziz, abantaila da euskaraz idaztea/itzultzea.

Javier Cercas:

(...) si yo fuera un escritor en catalán (o en vasco), pensaría que precisamente por eso en inglés ya está todo o casi todo dicho, que en inglés es más fácil decir cosas que en catalán o en vasco pero más difícil decir cosas que aún no se han dicho, pensaría que el inglés ha conocido casi infinitas transfusiones y que en esa lengua ya es muy difícil decir cosas nuevas, mientras que en catalán (o en vasco) todo está por decir, todos los mestizajes y revoluciones están por hacer y por tanto todo es posible. (183. or.)

Karlos Cid Abasolo:

Ni zorte oneko izan nintzen, euskarari esker merkatu-nitxo bat aurkitu bainuen: Madrilen euskara irakasle, eta aisialdian txekieratiko euskaratzaile. Konkurrentziarik ez. (55. or.)

Diruaz hitz egitea itsusi samarra bada ere, nire azken itzulpenagatik eman zidaten portzentajea hogei aldiz handiagoa izan da nire lankide Juan José Ortegak eta nire lankide ohi Martin Lexekek espainierara egindako hiru itzulpenengatik jaso zutena baino. Aitor dut, dena den, trilogia horretatik (*Milenium*) hiru milioi... ale gehiago saldu zirela Miroslav Holuben poemen nire itzulpen horretatik baino. (57. or.)

Portzentajea dagoen aldeaz gain, kontuan hartu behar da nire izen-deiturak ageri direla, itzultzaile gisa, poemen antologia horren liburuaren azalean bertan, eta, oro har, euskal argitaletxeek hala jokatu ohi dutela itzultzaileekin, ikusezintasunetik erreskatatzen gaituztelarik. Martin eta

Juanjo, ordea, ez ziren holako ohorearekin sarituak izan. (58. or.)

Beste alde batetik, beste artikulua batzuk irakurrita (Miguel Saénz, Marie Darrieussecq, Raul Zelik), irudipena sortzen zait euskara oraindik ere, kanpotik, bitxitxo baten gisa ikusten dela, gauza exotiko baten moduan, idazle eta itzultzaile (eta pertsona) exotikoen ahotan dabilena. Eta halako batean bitrina batean gorde beharko dena... Ez dut uste guk geure burua edo gure lantresnak —hizkuntza, besteren artean— batera exotiko edo batera moñoño ikusten ditugunik.

Saénzek, nonbait, gaztelaniatik eta gaztelaniara (bakarrik) itzultzen dela pentsatzen du, liburu itzulietan itzultzailearen ize-na agertzeaz ari dela dioenez:

Desde entonces, algunas editoriales se han convencido ya de que el traductor, ese supuesto fantasma, debe figurar de algún modo visible en las obras que traduce. Y he visto con agrado que eso es lo que suele ocurrir en las traducciones del euskera al español y del español al euskera. (231. or.)

Darrieussecq-ek bere burua «euskal etorkiko idazle frantses europar» gisa ikusten omen zuen, baina gero konbentzitu zen «euskal idazlea» zela, frantsesez bakarrik idatzi arren. Artikuluaaren titulua bera adierazgarria da: «Euskara, Mekong, zuluak eta ni». Eta honela azaltzen du bere ikuspegia:

Euskaldun izateak halako etxekotasunaz ikusarazten dizkizu herri ttipiak, edo lurralde jakinik gabeko herriak, hala nola Nigeriako igboak, kurduak, ordoki zaba-

letako indiarrek, edota Hego Afrikako zu-
luak... (71. or.)

Raul Zelik alemaniar-euskaldunak, be-
rriz, globoaren erdia zeharkatu omen zuen
idazlearen xerka, euskaratik itzuli zuen libu-
ruko zalantzak argitzeko...²

Guri dagokigunez, hori baino garrantzi-
tsuagoa, honelakoak esaten ditu:

Betiko leloa da itzulpenak egokitzapenak
direla esatea. Horrek, dena den, euskaratik
eginiko itzulpenetarako balio du, bereziki.
Dena birpentsatu zitekeen, birpentsatu
behar zen. *Segalaria* benetan *Schnitter* al
zen, edo gutxienez esaldi batean zirribo-
rratu behar al zen egoeraren funtsa? Ale-
manez *Schnitter* hitzak ezer baino lehen
herio dakar burura, Erdi Aroko irudi bat,
segaz bere biktimaren bila doanarena (...).
(114.-115. or.)

Bada, *segalari* hitzak ez dakit, baina, nire
ustez, *sega* hitzak euskaldun askori *heriol*/
heriotza dakarkigu gogora, dagoeneko ma-
kinaz egiten den eta gutxitan ikusten dugun
soroetako sega-lana baino gehiago: «Athor,
herioa athorkit honera / Bizi gaitz hunta-
rik nere lextzera / Herioa dathor itxura
txarrean. / Bere sega latza daukala soinean
(...)».³

Interesgarriagoak dira guretzat, inondik
ere, Cercasen eta Ciden iritziak. Abantailak
aipatzen dituzte; desabantailak ere badira,
nola ez, baina aurrerago hitz egingo dugu
horretaz.

Cercasek eta Cidek aipatzen dituztenez
gainera, bada beste abantaila bat ere azpi-
marratu beharrekoa: euskal idazle handiak
(handienetakoak) itzulpenaz hizketan hasi
dira, itzulpena goraiatzen, itzulpenaren
—itzulpen onaren— premia azpimarra-
tzen.

Anjel Lertxundi (Karlos Cidek *Dema-
gun*... lanean aipatua):

Nire ustez, edozein erdaratako literatura
euskarara itzultzeak ez du izan, salbues-
penak salbuespen, euskal idazle gehienen
sostengu eta aitortzarik, eta esan behar dut
(...) Anjel Lertxundi salbuespen militantea
dela. (59. or.)

Ibon Sarasolak, bere *Bitakora kaiera* li-
buruan, bere azken urteetako eboluzioa edo
bidaia dela-eta, honela dio:

Bidaia horren aurretik idazleak eta itzul-
tzaileak leziazten nituen; orain, bidaiaren
arian, euskal idazle eta itzultzaile onek le-
ziazte nauten ni eta erakutsi didate zein den
bidea euskaraz ongi idazteko. (156. or.)⁴

Bernardo Atxaga (Karlos Cidek *Dema-
gun*... lanean aipatua):

Gure hizkuntzak gure utopia lortzea nahi
badugu, giltza jakin batean jarri behar da
arreta guztia, eta haren izena da itzulpena,
itzulpenaren kalitateak erabakiko baitu
gure hizkuntzaren egoera. (59. or., oin-
oharra).

2. Aitortu behar dut ez zaidala hain ideia txarra iruditzen. Baldintzak aztertu behar, itzulpena entregatzeko epeak, etab.

3. Leonce Goietxe, *Fableak edo alegiak*, 1852. <http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/G/GoietxeFableak005.htm>.

4. Ibon Sarasola, *Bitakora kaiera*, Erein, Donostia, 2016.

Hemen esan behar da Atxaga itzulpenaz ari dela oro har, ez itzulpen literarioaz. Eta itzulpen orokor horren kalitateaz. Urte honen hasieran *Berrian* agerturiko elkarrizketa sonatu samar batean, hala zioen, besteak beste (2017, urt. 8):

Hizkuntzarekin daukagun arazorik handiena itzulpenarena da. (...) Bakarrik esaten dut gizarte batek, Jaurilaritza batek, botere publikoek antolatu behar dutela itzulpenaren kontua. Oraingo egoera erokeria bat da. Hor dugu puntu izugarri ahula eta kritikoa. (...) Ez naiz ari itzulpen literarioez, hori amateurren kontua da ia; geuk egiten dugu. Baina besterik da biologiako testu bat, milaka haurrek irakurriko dutena, edo errotulazioak, edo administrazioko testuak... Itzulpenarena estatu auzi bat da: behar luke aparteko kontseilaritza bat, eta behar bezala antolatzeko plan orokor bat.

Nire iritzian, arrazoi osoa du Atxagak. Gure munduan, euskal itzultzaileon artean, itzulpen literarioa dago lehen mailan; besteak ia aipatu ere ez dira egiten. Eta beste horiek dute pisurik handiena, eta, askotan, kalitaterik txarrena. Itzulpen literarioa, gehiena zaintzen den hura, anekdotikoa da. Besteak dira gizartera kopuru handitan heltzen direnak; eta denok dakigu, profesionalok batez ere, zeinen eskasak izaten diren askotan. Beraz, behar-beharrezkoa dela uste dut Atxagak aipatzen duen plan orokor hori. Edo horrelako zerbat.

Ildo horretatik, beste kontu bat ere aipatu nahi dut hemen: haur- eta gazte-

literatura. Itzulia eta itzuli gabea. Merkatu handi bat dago hor, baina nolabait ere bigarren mailakoa, eta ez zaio duen garrantzia ematen. «Bezeria gatibu» batentzat delako? Umetxoak, inguratzen dituzten heldu-samalden opariz gainezka; gazteak, eskolak irakurtzera behartuak... Txikiak kasuan, irudipena dut asko begiratzen zaiola irudiari, eta gutxitxo edukiari; eta, ipuinak umeentzat direnez, zer esaten den (eta nola) ez da nonbait hain inportantea. Egin ezazue proba: irakurri zenbait liburu ume txiki bati (ozen, jakina), ea zer pasatzen den. Kontalariaren asmamena, inprobisazio-ahalmenak garatzen direla; horra zer pasatzen den.

Desabantailarik handienetako bat, itzulpenaren kasuan, jendearen mesfidantza da. Hori ere psikopatiaren bat-edo izan daiteke, Juan Garziak esango lukeen bezala. Argitaratzaileek kontatzen dute: eskaini itzulpen bat irakasle bati, eta haren erantzuna: «Nahia go gureak». Adu izan dut argialetxe batean esaten euskal literaturan genero berri bat sortu dela: epika, lirika, antzerkia... eta itzulpena. Komentariarik ez... Alde horretatik, beraz, itzulpena —itzulpenaren izen ona— zabaldu nahi bada, gutxi izango dira era guztietako eginahalak eta ekimenak.

Eta beste desabantaila bat, niretzat —nire jardunarentzat, esan nahi dut—, hizkuntza bera da. Izan ere, hainbeste erakunde, hainbeste arau eta aholku, eta oraindik ez dago behar bezala deskribatua.⁵

Puntu honetan, merezi du Sarasolaren liburuaz jardutea (eta haren atzean partez

5. Esate baterako, ez dago oraindik guztiz argi *haren/berel/beraren* arteko aldea, eta, hortaz, ezta erabilera ere. Antzeko kontuak daude erlatiboekin ere.

Erlatiboak direla-eta, aipatzeengatik (hau da, «por alusiones»), esaldi honetan: *Laurak, beti oso txukun orraztuta dabilenak, esan zidan azkenean zer ile-apaindegitarra joaten den*. Ez da bereizten zer esan nahi den: *Laurak, beti oso txukun*

dagoen Kepa Altonagaren *Back to Leizarragaz*).⁶

Lehendabizi, euskara batuari eta euskalkiei dagokienez: gai horrek ere ez luke behar komentariarik, baina behar du non-bait; hain dira ergelak batzuk. Sarasolaren hitzek zenbait pertsona eskandalizatu ditu, baina ez zait iruditzen hainbestekoa denik. Besteak beste, terminologia-arazo bat dago, nik uste.

Honela dio Sarasolak:

... euskalkiek, bizpahiru belaunalditan, euskalki izateari utzi behar diote eta euskara batuaren aldaera huts bihurtu... Andaluziako edo Argentinako espainiera espainiera estandarraren aldaerak diren bezala. (73.-74. or.)

Eta aurrerago:

Azken batean, Oñatin oñatiera, eta Usurbilen usurbilera erabiltzea —jardun pribatutik kanpo, jakina—, folklorea da. Folklore hori ahalegin osoz konbatitzen saiatu ginen gu, euskara batua ederki kostata eraiki genuenean, folkloreak ez zuelako inongo in-teresik hizkuntza nazionalarentzat.

Euskalki/aldaera artean zer alde dagoen? Batzuetan, ez oso handia, esango nuke nik. Eta *jardun pribatua* ere aipatzen da. Negargarria ere gertatzen da euskara batua *jardun publikoan* erabiltzekoa dela hainbeste aldiz esan beharra. Alde horretatik, argigarria da *Aupa Etxebeste* filmeko anekdota hau (73 or.): une jakin batean euskalkia erabili, «ikuslea hurbiltzeko», eta ia inork ulertu ez...

Hona zer dioen Santi Leonek (*Maite ditut, maite, gure euskalkiak, batua estaltzen didatenean*):⁶

Koldo Zuazok errana da euskalkiak sentimenduak adierazteko behar direla; beraz, heldutan euskara —euskara batua, erran nahi baita— ikasi dugun guziok hobe genuke gaztelaniara bueltatzea, zernahitarako balio duen hizkuntza hura utzia baitugu sentimendu kontuetan maingu dabilen hizkuntza baten truke.⁷

Eta gure —itzultzaileon— desabantailarik handiena: hizkuntza bera, euskara eta euskararen egitura. Hiztegia, gramatika: hutsuneak, eskasiak, urritasuna, akatsak, okerak, zalantzak, zalantzak. Euskaltzaindia-

orraztuta dabilen (emakume, irakasle, dendari...) horrek, esan zidan azkenean zer ile-apaindegitarra joaten den; edota Laurak —oso txukun orraztuta dabil beti— esan zidan azkenean zer ile-apaindegitarra joaten den.

Susmoa dut bigarrena esan nahi dela (hau da, *zein* batekin primeran joango litzatekeena), baina ez du esaten. Ezta bestea ere, seinalatzekoa alegia. (Ik. *Bitakora kaiera*, 107. or.)

6. Kepa Altonaga, *Back to Leziarraga*, Pamiela, 2015.

7. <https://zuzeu.eus/euskara/maite-ditut-maite-gure-euskalkiak-batua-estaltzen-didatenean/>

Santi Leoneren artikuluarri ez ezik, merezi du komentarioei begiratu bat egitea, eta ikustea, beste (leku eta okasio) askotan bezala, solasak nola egiten duen segituan eztabaida aldera aurrena eta borroka eta deskalkifikazio zakarrenera gero.

Horretan ere ez gara batere originalak, jakina. Argitaratu berria da Andaluzian *Er Prinzipito*, Huan Porrah izeneko batek itzulua. Liburuaren egilea, berriz, hara, Antoine de Saint-Exupéry jauna da.

8. Aipatu behar dut hemen Iñaki Seguro-laren kasu zelebrea. Euskarari dagokionez Sarasolak aipatzen dituen hiru idazle hoberenetako batek (Lertxundi eta Atxaga dira beste biak) hamaika testutan frogatzen du euskara batua ezin aberatsa goa, ezin adierazgarriagoa, ezin jori eta ezin emankorriagoa dela... euskalkien alde (edo) eginez.

ren arauak, EIMaren arauak eta ia-ia buruz ikasi beharreko zerrendak, Juan Garziaren teoriak/aginduak/debekuak.⁸ Sarasolarenak. Erderismoak. Garbizalekeria. *Sukaldatu* de-segokia iruditzen zaidala esaten dudanean, garbizalea naiz?⁹ Eta *Hori da postre* aditzen dudanean, edo *Dago Ines*, zer? Ez al da be-larria gramatika?¹⁰ Argi dago, nik uste, gar-bizalekeria ez bada, garbizaletasuna behar-beharrezkoa dela itxurazko zerbait egiteko, zuzen-zuzenean kaosera joan nahi ez badu-gu, ez baitago urruti.

Zeinismoari eta antzeko egiturei da-gokienez, erabat ados nago Sarasolarekin eta Altonagarekin. Altonagarekin, zenbait itzulpenen/adieraren zehaztasun-falta ai-patzen duenean. Arazo larria da adjektibo erreferentzialen falta, hitz elkartuak bultza-tuz konpondu nahi izan dena; baina for-mula horiek, askotan, gauzak (esanahiak, edukiak) konplikatuko besterik ez dute egiten. EHUren webgunean oraintxe ikusia: *Arki-tektura Unibersitate Masterra*. Gaztelania-rik gabe, asmatuko genuke zer den?

Itzulpenaren harrera. Hemen ere, Atxaga gogoratu behar dugu, bereziki «euskal mas-kara» aipatzen duenean; alegia, salmenta es-kasa eta kritika falta. Egia da maskara hori existitzen dela, baina bada «erdal maskara» bat ere. Eta ez bedi kontsolamendua izan,

ez bada pentsatzeko honetan *ere* ez garel-a espezialak; kontsolamenduarekin edo kont-solamendurik gabe, arazoak bere horretan dirau.¹¹

Normala ote da euskal itzulpenean egin den lanik handienetako batek, edo handie-nak, aipamenean bat edo beste kenduta, Ola-rrak itzultitako *Ulisesek*, batere oihartzunik ez izatea ez irakurleen ez itzultzaileen artean? Larriagoa da hori, nire ustez, salmenta-datu kaskarrak baino.

Eta salmenta-datu kaskar horiek... hain harrigarriak dira? Ez. Ahaztu best-sellerrak. Horiek bestelako kasuak dira, bestelako ba-lio bat dute; ez ditut gutxietsi nahi, baina ez dira luzaroan iraungo duen literatura. Gu beste alor batean gabilta, eta salmenta-datu kaskarrek inondik ere ez dute esan nahi egin behar ez direnik gutxi saltzen diren itzulpen horiek. Nahitaez egin behar dira, eta ondo, gainera, batez ere Literatura Unibertsale-koak. Baina ez horiek bakarrik, baita liburu garaikideak ere. Merkatuak, berez, ezin dio eutsi halako ekoizpen bati, eta, alde horre-tatik, ereduizkoa eta mirestekoa da Igela, Pa-sazaite eta Meettok argitaletxeen lana. Eus-kara bultzatzen segitu nahi badugu, euskal prosa taxutu eta tankeratu beharko dugu: horixe da bide nagusietako bat.

9. Bakoitzari berea: ezin hemen aipatu gabe utzi Juan Garzia joskerari eta testugintzari buruz egiten ari den ikerketa- eta zabalkunde-lan handia, ekarpen berria eta aberasgarria, beti ondo ulertzen ez den arren, sarritan arau-balioa ematen baitzaio halakorik ez duenari.

10. Analogiaz sortua omen da *sukaldatu*. Analogia, zerekin? *Berotu* edo *hoztu*ekin? Ez, *bero* eta *botz* adjektiboak dira. *Opa-ritu*? Hurbilxeago, baina ezta ere, *oparia egin* da-eta. *Gelaratu*? -ra- horrek traba egiten digu, ordea. *Cocinar*-ekin ikusten dut nik parekotasuna: *cocina-cocinar, sukalde-sukaldatu*.

11. Josu Zabaletaren hitzak, *Bitakora kaieran* aipatuak. (9. or.).

12. Ikus Ignacio Sánchez-Cuencaren *La desfachatez intelectual* (La Catarata, 2016), liburu guztiz interesgarri eta argigarria. Une batzuetan, Sánchez-Cuencarenek Atxagaren hitzak dirudite, baina talde askoz ere zabalago bati aplikatuak.

Resumen

Valiéndose de la carta blanca que le ofreció San Sebastián 2016, Anjel Lertxundi ideó el proyecto *Demagun ehun urte barru* para reflexionar en torno a la literatura en lenguas no hegemónicas y su futuro, en un contexto cultural fuertemente influenciado por la globalización. Así, en diciembre de 2016 el escritor reunió a seis autores y traductores, con quienes compartió diversas experiencias y puntos de vista. Por otra parte, varios escritores de renombre —el propio Lertxundi, Bernardo Atxaga, Ibon Sarasola— han subrayado recientemente la importancia de la traducción. A partir de todo ello, la autora del artículo hace aquí sus propias reflexiones.

Résumé

Profitant de la *Carte Blanche* que lui avaient offerte les organisateurs de « Donostia 2016 » (capitale européenne de la culture 2016), l'écrivain basque Anjel Lertxundi a mis en place un projet intitulé *Demagun ehun urte barru* (Imaginons dans cent ans), dont le but est de faire une réflexion sur la littérature des langues non hégémoniques et leur avenir, dans un contexte fortement influencé par la globalisation. C'est ainsi qu'en décembre 2016, l'écrivain a réuni six auteurs et traducteurs avec lesquels il a échangé diverses expériences et points de vue. Par ailleurs, plusieurs écrivains de renom — Lertxundi lui-même, Bernardo Atxaga, Ibon Sarasola — ont souligné récemment l'importance de la traduction. L'auteure de l'article nous fait part de sa propre réflexion sur ces sujets.

Abstract

When San Sebastian 2016 gave him *carte blanche*, Anjel Lertxundi brought together six authors and translators in San Sebastian to ponder literature in non-hegemonic languages and its future in a cultural context strongly influenced by globalization. The project was called *Demagun ehun urte barru*, and in it the problem of translation took precedence. Furthermore, some Basque writers of renown — Lertxundi himself, Bernardo Atxaga, Ibon Sarasola — have recently underlined the importance of translation. The author of the article presents her own reflections.